


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Eguena / 2003ko uztailaren 24a / 550. zenbakia

ABUZTUKO EGUENAK

Zinema emanaldiak 22:00etan, San Martin plazan



GAZTETXEA: IRAILERAKO GUZTIZ BERRITUTA/4 • IPINTZA: ELGETAKO FO FO FO TALDEA TXAPELDUN/6

AZALA: MIREN ALMARAZ / JATORRIZKO IRUDIA: RICK PARKER

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 25**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- ZAPATUA, 26**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- DOMEKA, 27**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 28**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- MARTITZENA, 29**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 30**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUENA, 31**
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaltzaia 943 77 91 00
- Antzuolako Udaltzaia 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|-------------------------|--------------------------------|
| San Pedro | Labegaraieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta lanegunak: | Zapatuak: 20:00. |
| 19:00. | Angiozar |
| Sierbak | Domekak: 11:30. |
| Lanegunak: 19:15. | Moja Zaharrak |
| Zapatuak: * | Lanegunak: 09:00. |
| 19:00. | Zapatuak: 11:00. |
| Domekak: | Mizpirualde |
| 11:30, 13:00. | Lanegunak: 11:45. |
| Osintxu | Zapatuak: 17:30. |
| Domekak: 12:30. | Antzuola |
| Zapatuak: 19:00. | Domekak: |
| Elosu | 09:00, 11:30. |
| Domekak: 10:30. | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Ubera | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |
| San Juan | Elgeta |
| Domekak: 11:00. | Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi | Zapatuak: 19:30. |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

BEDELKARREKO ZOZKETA
Bedelkar herriko dendarien elkarteak uztailaren 8an egindako zozketan zenbaki hauek izan dira sarrituak: 26.166, 30.012, 31.962 eta 61.547. Zenbaki bakoitzari 500 euroko erosketa bonoa egokitu zaio.

BEDELKARREKO ZOZKETA
Igeri Elkarteak egindako zozketan 474 izan da saritutako zenbakia. Txartelaren jabeak Donostiako Aste Nagusian Costa Vasca hotelean egonaldia eskuratuko du.

INFORMATIKA IKASTAROAK
KZGuneak herritar guztien dako informatika ikastarok eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

ARANTZAZURA ERROMESALDIA
Egubakoitzean, uztailaren 25ean, Arantzazura erromesaldia izango da eta gero bisita Loiolako Santutegira. Irteera 09:30ean izango da, autobus geltokitik. Txartelak Agirreña jatetxean, Zerkauzi janari dendan eta Zatoia arropa dendan.

ODOL ATERATZEAK
Abuztuan bi odol ateratze egingo dira Bergaran, hila- ren 13an eta 27an hain zuzen.

JARDUNEN AGENDA

GAZTETXOEN IRTEERA EGINORA IRAILEAN
Antxintxika programaren barruan, Jarduneko gatzetxoek Eginora irteera egingo dute irailaren 3tik 6ra bitartean. Izenematea Jarduneko bulegoan -Errotalde jauregian- egin daiteke. Argibideak 943 76 08 19 edo 943 76 36 61 telefono zenbakietan.

URBANOEN ORDUTEGIA


San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra- dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gaine- an, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labe- garaieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiau- rre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger- tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Iker Murua- mendiaraz, Elgetan txapeldun

Iker Muruamendiaraz pilotariak kadete mailako Elgetako lau t'erdiko txapelketa irabazi zuen 1993ko uztailaren 9an. Finalean Zearra galdakotarrari nagusitu zitzaion, 18-13. Aurretik, finalerdietan, Larraiari irabazi zion Ikerrek. Txapelketa bikaina egin zuen Ikerrek Elgetan.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Madala"

Zuhaitz adar txikia.
—Azkarran madala ibiltze giñuan
Idurixon ganauei eulixak kentzeko.
—Keixa guzti onek madaltxo batek zeuzkan.



HAUGIROA!

MINIMOA Eguena, 17	9 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 18	35 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	1,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 16	22 °C	13 °C	— l/m²
Eguena, 17	28 °C	9 °C	— l/m²
Egubakoitza, 18	35 °C	13 °C	— l/m²
Zapatua, 19	28 °C	15 °C	— l/m²
Domeka, 20	28 °C	16 °C	0,4 l/m²
Astelehena, 21	21 °C	18 °C	1,2 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak


GOGORATZEKOA

SANTIAGO EGUNA BASALGON

Bihar, egubakoitza, Santiago eguna ospatuko da Basalgon auzoan. Meza nagusia izango da 11:00etan eta 12:00etan gazte mailako Basalgoko Txirridulari Igoera jokatu da. Ondoren, pilota partiduak jokatu dira, 12:30ean, eta arratsaldean, Basalgoko XI. Dantza Txapelketa jokatu da, 17:30ean. Ondoren, 18:30ean, idi probak egongo dira, eta iluntzean erro- meria izango da Xafre eta Zaharra so- nujoleekin (argazkian).



ZABALA JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

Aldoka Maldoka


TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

ATREBENTZIAEZPADA/ Badaukazu planik oporretarako? Ze egingo dozu?



NAIARA GALA
16 urte



LEONARDO ESNAOLA
70 urte



JOANA HEIS
22 urte



MARI KRUZ ARREGI
67 urte



JESUS EGUREN
58 urte



PEDRO VICENTE
47 urte

Bai. Uztaillan 30ian Cambrilsera jungo naiz. Mutillakin noia, eta haren familiakiakin. Abuztuan 15era arte egongo gara han. La eguraldi ona egitten doskun Cambrilsen.

Ruandara jungo naiz, Elgetako parrokuakin batera. Han urte askuan egon naiz, eta oin, hillabete pasatzera jungo naiz, hango ezagun eta lagunak ikusteko. Urtero juteko asmua daukat.

Oingo ez daukat iñungo planik. Ez dakit ze egingo doten. Igoal kanpora jungo naiz, baiña ondiokan ez dakit, beti ibiltzen naiz azkeneko momentuan planik egiten.

Navarretera, Errioxara jungo gara, kanpiñera. Abuzturako jungo gara. Urtero juten ga abuztuko oporraldixa hara pasatzera. Asko gustatzen jakun tokixa da.

Hegoaldera jungo gara. Cadiz ingurura. Egubakoitzean jungo gara, abuztuaren 10era arte. Lehenengo aldixa da hara juten garena. Saiatzen gara toki ezberdinetara juten.

Oporrak ailegatzeko desiatzen nago. Torrevieja ondoko herritxo batera jungo gara. Hilebetia emoten dogu han, eta azkeneko zortzi urtietan jun gara. Umia be gustora egoten da-eta.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK GAZTETXEA ETA SANTA MARINA Aurten bi zaharberitze eta egokitzeren emaitzak ikusteko aukera izango dugu. Bata Santa Marina: benetan ederra geratu da. Bestea, gaztetxea: lanak amaitzeaz daude, eta oso itxura ona du. Ondarea zaintzea oso garrantzitsua da, baina, gainera, gaztetxearen kasuan bezala, erabilera berria ematen baldin bazaio, are egokiagoa iruditzen zaigu. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

Garabi zerbitzua irailerako

Garabi zerbitzua irailean jarriko dute abian. Eroandako autoendako gunea abuztuan egokituko dute.

KIROLAK /7

Bazkideen kuotak gora

Bazkideen kuoten igoera onartu zuten Bergara KEko batzar orokorrean, egubakoitzean.

KULTURA /8

Pikulitza rock jaialdia

Antzerki eta musika jaialdia egongo da bihar, egubakoitzean, Gorkako kantina aurrean, 20:00etan.

ASTEKODATUA

180

MILA EURO INGURUKO AURREKONTUA BKE-K

Bergara Kirol Elkartek 180.300 euro inguruko aurrekontua izango du hurrengo denboraldian, Batzar orokorrean esandakoaren arabera. 132.200 euro futbol sailera bideratuko dira.

BESTEKEESANA

“

Fatxak exhibizionistak dira, berez, eta horrela erraza da haiek antzematea.

Benetan kezagarria

dena da, bere burua nazionalistatzat duen hainbat jarrerara, euskararen profesionalak diren hainbatena, hainbeste instituzio ohoragarri, hainbeste tertuliano euskaltzale... Horien guztien jarrerara da kezagarria, deskalifikazioaren koroari gehitu zaizkiolako. Asko hitz egiten dute, eta beti dihardute manipulazioaz, erabilera partidistaz, banderen jabetzeaz... ez onartzearen, behingoz, eta betiko, Tour-ak Baionan barrena euskaraz hitz egiten badu, ez dela izango, inondik inora, Euskaltzaindiko presidenteak alkateari eskatu diolako, eta azken honek Leblanc-i. Batasunak bilatu eta lortu duelako akordioa, baizik. MARTIN GARITANO / Kazetaria 'Gara'/03-07-22

BERAIEKDIÑO/ Lander Juaristi



Anarkistak, komunak eta bideo bigilantzia

Badaude komun arruntak eta komun karismatikoak; Gaztetxean, inguruko komunik historikoena dugu.

Kontzertu edo juerga batean komunera joan eta gorputzaren eskakizunei erantzuterakoan, inor gutxi gogoratu izan da, bertan, komun bilakatu zuten ziega horretan eman zituela Angiolillo anarkista italiarrak bere azken orduak, bertan sufritu zituela heriotzaren gertutasunak eragindako izerdi hotzak, bertan amestu zuela azkenekoz gizarte justuago bat. Gaur egun bestelakoak ikusiko dituzte horma horiek, maitasun, gorroto, sexu... historia xelebre gertatzen baitira komunetan; zer esanik ez gaztetxe bateko komunean. Laster, txiza leku bilakatu zuten ziega magikoak, komun izateari utziko dio, eta gaztetxe eraberritua beste zeregin duinago batzuk izango ditu.

1897. urteko abuztuaren 8-an Canovas, Espainiako gobernuburua, Santa Agedan hil eta gero, Bergaran kartzelaratu, eta patioan exekutatu zuten Angiolillo. "Garrote vil" erabili zuten, herritarren aurrean anarkista (batzuentzat sozialista) italiarrari arnasa ukatzeko.

"Gazteon mugimenduak ondo zigitatzeko kamerak jarri dituzte. Hain arriskutsuak al gara?"

Gertaera hau mende bat eta bost urte beranduago izan balitz, izugarriko dokumentu grafikoa izango genuke. Garai hartan kartzelako patio zena, gaur gaztetxe sarrera baita, eta bertara, zuzen zuzenean begira, gazteon mugimenduak ondo zigitatzeko kamera moderno eta sofistikatuak jarri baitituzte! Horren arriskutsuak al gara? Zilegi al da kamera batek gaztetxe bizi kontrolatzea?

105 urte iragan dira Angiolillo heriotzaren atarian, Gerninal! (esperantza hitzaren sinonimoa) oihukatu zuenetik, nik ere Gerninal! oihukatuko diot gaztetxe atera begira dagoen anaia handiari.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERRIGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil

ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar

MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga

KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91

ISSN
1130-6599

TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GAZTETXEA/ Txapa Irratia gaztetxearen lehen solairura eramango dute eta irailaren 19an hasiko da handik emititzen

Gaztetxeko egokitze lanak bukatzeaz dira, eta irailaren 12an irekiko dute, berrituta

MONIKA BELASTEGI


Urtarrilaren bukaeran hasi zituzten gaztetxea egokitze lanak, eta dagoeneko ia bukatuta daude. Kartzelariaren etxean egin dituzte lan mar-dulenak, horixe zen-eta egoera kaskarrean zegoen zatia. Oporren ondoren guztiz berrituta zabalduko dute.

Azkeneko ukituak besterik ez zaio falta gaztetxeari egokitze lanak bukatzeko. Leihoak jarri, markoak margotu eta Txapa Irratia egongo den gelan zorua jartzea besterik ez da falta.

Gaztetxearen proiektuak bitan banatu ditu lanak: batetik, kartzelariaren etxean egin beharreko konponketak; eta, bestetik, kartzelan egin beharrekoak.

Lan sendoenak kartzelariaren etxean egin dituzte, horixe zen-eta egoera kaskarrean zegoena, eta horrexegatik, hain justu ere, hasi ziren lehenengo konponketen. Konponketok Arregi Eraikuntzak enpresari esleitu zizkion Udalak, eta urtarrilean hasi ziren lanean. Bien bitartean, eta euren jardunak etenik ez izateko, gaztetxeko kideek kartzelariaren etxera pasatu zuten taberna, eta han egin dituzte antolatutako ekitaldi guztiak.

Kartzelariaren etxeko beheko solairuan taberna eta komunak egokitu dituzte, baita lehen solairura igotzeko eskailerak eta igo-



MONIKA BELASTEGI

Ezinduak ere kontuan hartu dituzte. Gaztetxera ailegatzeko aldapatxoa egin dute, irudian ikusten denez.

gailua ere. Lehen solairuan aldagelak eta hiru gela handi egin dituzte: batean, sukaldea jarriko dute gaztetxeko kideek; beste batean, Txapa Irratia; eta bestea tailerretarako erabiliko dute.

Kartzelariaren etxeari dagokionez, ekitaldietarako areto gisa jarraituko du. Han zeuden komunak kendu egin dituzte eta bero-gailu eta argiteri sistema berriak

jarri dituzte, besteak beste. Gainerakoan, lehen bezala jarraitzen du.

IRAILAREN 12AN ZABALDUKO DUTE

Gaztetxeko kideen esanetan, datoren astean hasiko dira guneak atontzen eta janzten. Txapa Irratia ere Zabalotegiko aretotik gaztetxera eramateko dago, eta hori irailean egingo dutela adierazi

dute Txapako kideek. Gaztetxeko kontu guztiak irailerako bukatuta egongo dira, eta irailaren 12an zabalduko dute. Ordutik aurrera, beraz, gaztetxeaz osotasunean gozatzeko aukera egongo da: kartzelariaren etxeaz eta ekitaldietarako aretoaz.

Txapa Irratiaren kasuan, irailaren 19an hasiko dira emititzen, seguruenik, gune berritik.

LABUR

Mayc-eko langileek greba egin zuten eguaztenean

Egun osoko greba egin zuten. Hitzarmena negoziatzen jardun dute zuzendaritzarekin hilabete eta erdiz, eta adostasunera iritsi ez direlako egin zuten greba.

Desadostasuna eragin duten puntu nagusiak honakoak dira, besteak beste: soldataren igoera -%6,25eko igoera eskatu dute-, urteko lan jarduna -22 orduko murrizpena eskatu dute-, behin-behineko langileen egoera, erretiroak eta jangela.

ELAko ordezkariaren esanetan, egunotan adostasunik ez badute lortzen, abuztuaren 27an eta 28an berriz egingo dute greba. Orduan ere ez bada dirak konpontzen, irailaren 8an mugagabekoari ekingo diote.

Udal Liburutegia astebetetz itxita egongo da abuztuan

Udako oporrak direla kontuan izanda, Udal Liburutegiak astebetetz itxiko ditu ateak abuztuan. Abuztuaren 11tik 17rako astean egongo da itxita, hain justu ere. Bestalde, Santiago eguna dela eta, uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean ere egongo da itxita.

Abuztuko gainerako egunetan zabalik egongo da eta honako ordutegia izango du: 08:00etatik 13:00etara.

Basalgo, Goimendi eta San Lorentzo auzoetan jaiak

MONIKA BELASTEGI

Udan herri askotako jaiak izaten dira. Urruti joan barik, hemen, herrian bertan badiugu hainbat jai: auzoetako jaiak, hain justu. Asteburuan Basalgon eta Goimendi ospatuko dituzte jaiak eta abuztuan, berriz, San Lorentzon.

Bihar, egubakoitza, eta etzi, zapatua, ospatuko dituzte jaiak Basalgo auzoan. Bihar meza egongo da 11:00etan, eta 12:00etan, 21. Basalgo Igoera txirrindulari proba. 12:30ean pilota partiduak egongo dira eta 17:30ean, berriz, Basalgoko XI. Dantza Txapelketa. Txapelketan zortzi bikotek hartuko dute parte. 18:00etan idi probak egongo dira, eta Arruako *Etxetxok* eta Itziarko *Ixama*-k buruz buru jardungo dute. Horren ondoren, Xafre eta Zaharrak alaitutako erromeria egongo da.

Etzi, zapatua, meza egongo da 13:00etan, eta gero, luntxa eta umeendako jokoak. Azkenik, jaiak bukatzeko, bertso bazkaria egongo da Zeberio eta Mendizabal bertsolariarekin eta Xafre eta Zaharra trikitilariarekin alaituta. Bazkarirako izena Iharo edo Mekolalde tabernetan eman behar da.

GOIMENDI AUZOAN ERE JAIK

Angiozarko Goimendi auzoan ere jaiak ospatuko dituzte bihar, egubakoitza, eta etzi, zapatua. Bihar 21:00etan hasiko dira jaiak eta berakatz-zopak egongo dira auzoko plazan. Horren ondoren, 22:30ean erromeria egongo da goizaldera arte, Alaitz eta Olatz soinu jotzaileekin.

Etzi, zapatua, meza egongo da 11:00etan, eta 12:00etan herri kirolak. Erakustaldian Perurena aita-semeek harria jasotzen jardungo dute eta Barberenak, aizkorare-

kin. 13:00etan Agirre eta Telleria bertsolariak saioa egingo dute, eta gero musika egongo da Izar eta Alabier trikitilariarekin.

17:30ean dantza askatuko erakusketa egongo da eta 18:15ean Agirrek eta Telleriak bertso saioa egingo dute. 18:30ean, berriz, bola joko txapelketa egongo da, eta horren ondoren erromeria egongo da Izar eta Alabier trikitilariarekin, jaiet amaiera emateko.

ABUZTUAN SAN LORENTZOKO JAIK

Abuztuaren 30ean San Lorentzo jaiak ospatuko dituzte. 12:30ean toka eta igela txapelketak izango dira, eta gero trikitilariarekin alaitutako txikiteoa egongo da. 17:00etan kukainak eta txokolate-jana egongo dira Maduran eta gero, buruhandiak. 20:00etan meza egongo da San Lorentzoko ermitan; 21:00etan, sardina-jana arkupeetan, eta azkenik, dantzaldia bitels taldearekin.



MONIKA BELASTEGI

Perurena aita-semeek harria jasotzen jardungo dute etzi, zapatua, Basalgon.

SANTA MARINA/ Bertaratutako agintari eta herritarrek zaharberitze lanaren fruitua ikusi ahal izan zuten domekan, parrokiaren berrinaugurazioan

Santa Marinak liluratu egin zuen domekan

MONIKA BELASTEGI

Domekan berrinauguratu zuten Santa Marina parrokia. Jaurlaritzako, Foru Aldundiko, Elizako eta Udaleko hainbat agintari izan ziren berrinaugurazio ekitaldian; herritarrek ere ugari izan ziren. Guztiek aho zabalik begiratu zieten elizako txoko berrituei.

Miren Azkarate Kultura sailburua, Joxe Joan González de Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia, Juan Maria Uriarte gotzaina, Victoriano Gallastegi alkatea eta Xabier Azkotia Santa Marinako parrokoa izan ziren, besteak beste, berrinaugurazioan.

Agintariek eta bertaratutako herritarrek Santa Marina parrokiaren itxura berria ikusteko aukera izan zuten, baita urtebe-

teko lanen nondik norakoak jakiteko ere. Eliza bisitatu aurretik, Uriarte gotzainak berba batzuk egin zituen elizaren atarian, monumentua dela gogorarazteko jarri duten plakaren aurrean. Gotzainak esan zuen elizaren lehen zeregina erlijiosoa dela, baina ezin dela ahaztu ondare gisa duen balioa ere.

Ondoren, ordubete inguruko bisita egin zuten elizan, eta Sakristau etxea ere ikusi zuten. Sakristau etxearen kasuan, orain arte lagata egon bada ere, zaharberitze lanekin guztiz berreskuratu eta erabilera berria eman diote: batetik, elizako zerbitzuetarako eta, bestetik, museo gisa ere erabiliko dute, elizako hainbat artelan gordetzeko.

Horren guztiaren ondoren, Uriarte gotzainak meza esan zuen hainbat abadek lagunduta.




Juan Maria Uriarte gotzainak bedeinkatu eta inauguratu zuen Santa Marina parrokia.

ARGAZKIAK: USOA AGIRRE



Agintariek ordubeteko bisita egin zuten elizan barrena, berritutako txoko guztiak ikusteko.



Bisitaren ondoren, Uriarte gotzainak esan zuen meza, hainbat abaderen laguntzarekin.

Irailean jarriko du abian Udaltzaingoak garabi zerbitzua

MONIKA BELASTEGI

Dagoeneko erosi dute garabia, Udaleko iturrien esanetan, eta abuztuan barrena garabiak hartutako autoak lagatzeko gunea egokituko dute, Urarte kalean. Eta hara eramango dituzte garabiak hartutako ibilgailuak.

Udaltzaingoak izango du zerbitzuaren ardura, eta eramandako autoak jasotzeko Udaltzaingora jo beharko da, egunez baldin bada; gauez, berriz, Ertzaintzara jo beharko da. Garabiak honako ibilgailuak eramango ditu, besteak beste: arriskua sortzen dutenak, ibilgailuen

zein oinezkoen zirkulazioa eragozten dutenak eta zerbitzu publikoren bat eragozten dutenak. Tarifa zehaztu barik dago; dena dela, batetik, ordaindu egin behar da garabiak ibilgailua bide publikotik kendu eta gordetzea, eta, bestetik, egindako arau-haus-teari dagokion isuna.

LABUR

Turismo Bulegoa irailaren 30era bitartean egongo da zabalik ohiko bisitaldi gidatuekin

Irailaren 30era arte egongo da zabalik Turismo Bulegoa. Honako ordutegia izango du: asteleheneetik egubakoitzera, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Domeketan eta jaiegunetan, berriz, 11:30etik 14:30era egongo da zabalik.

Bestalde, egunero bisitaldi gidatuak egingo dituzte, doan. Bisitek ordubete inguruko iraupena dute eta, batik bat, alde zaharra erakusten dute. Bisitetarako ez dago aurrez ordua hartu beharrik. Informazio zabalagoa nahi baduzue Turismo Bulegoko telefonora deitu: 943 77 91 28.

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintuñ-lanak
orokorrean

•
Pintura industrial


•
Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

610 25 99 82

610 25 40 37

943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



EL CARMEN

GARBIKETA
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua

Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak

Moketa garbiketak

Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23



Fo Fo Fo eta Bildurbarek Opel Lam taldeetako jokalariek egubakoitzeko finalaren ostean.



Beteranoen finalean Mongatxurak taldeak Guipuzcoanari irabazi zion, 3-1.

FUTBOLA

Fo Fo Fo taldeak penaltietan irabazi zion Bildurbarek taldeari Ipintzako finala

Partidua hirunako berdinketarekin amaitu zen, eta elgetarrak penalti-jaurtiketetan nagusitu ziren, 4-3

EDU MENDIBIL

Elgetako Fo Fo Fo taldea izan da Ipintzako Txapelketako irabazlea aurten. Finalean Bildurbarek Opel Lam taldeari irabazi zion eta emozioa ez zen falta izan: hirunako berdinketaren ostean penalti-jaurtiketetan nagusitu ziren elgetarrak, 4-3.

Egubakoitzeko finala oso borrokatua izan zen, eta Ipintzan bildutako ikusleek partidu ederra ikusteko aukera izan zuten. Elgetarrak aurreratu ziren markagailuan eta lehen zatia banako berdinketarekin amaitu zen. Bigarren zatian 3-1eko abantaila lortu zuen Fo Fo Fok, baina partidua bukatzeaz zela Markos Alonsok hirunako berdinketa egin zuen. Beraz, penalti-jaurtiketak izan ziren, eta elgetarrak 4-3ko emaitzarekin irabazi zuten. Partiduan honako hauek izan ziren golegileak: Fo Fo Foren aldetik Koldo eta Oxel Erostarbe aniek eta Aritz Gallastegik, eta Bildurbarek taldearen aldetik Juan Luis Etxaniz eta goian aipatutako Alonso. Beste gola elgeta-

rrek egin zuten bere atean. Emozio handiko finala izan zen, txapelketari amaiera ezin hobea emateko. Alboko argazkietan agertzen direnez gain, Luis Garitanok (Torrekua) jokalaria beteranoen saria jaso zuen, iaz bezala. Garitanok 43 urte ditu eta oraindik primeran moldatzen da gazteen artean.

BETERANOEN FINALA, MONGATXURRAK TALDEAK IRABAZI

Jakingo duzuen bezala, beteranoen mailako txapelketan Mongatxurak taldeak 3-1 irabazi zion Guipuzcoanari. Antolatzaileek Igor Unzurrunzaga (jokalaria onena), Patxi Osa (golegile onena) eta Pedro Jausoro (atezain onena) nabarmendu zituzten.

IPINTZAKO TXAPELKETAKO ZOZKETAN 898 ZENBAKIA IZAN DA SARITUA

Bestalde, joan den egubakoitzeko finalean antolatzaileek egin dako zozketan 898 zenbakia izan da saritua. Txartelaren jabeak Zumelaga jatetxean lau lagunendako afaria eskuratuko du. Hogeita hamar eguneko epean irabazlerik agertuko ez balitz, 555 izango da ordezkoko zenbakia.



Koldo Erostarbe (Fo Fo Fo), jokalaria onenaren sariarekin.



Juan Luis Etxaniz (Bildurbarek), golegile onenaren saria jaso zuen.



Julian Rodriguez (Mongatxurak), izan da txapelketako atezain onena.



Igor Unzurrunzaga (Guipuzcoana) jokalaria beterano onena izan da.



Patxi Osa (Mongatxurak), beteranoen txapelketako golegile onena.



Pedro Jausoro beteranoa (Txipiron), atezain onenaren sariarekin.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI




TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

BKEko batzar orokorrak bazkideen kuoten igoera onartu zuen

E.M.
Bergara KEk batzar orokorra egin zuen egubakoitzean eta, besteak beste, bazkideen kuoten igoera onartu zuen. Era berean, Udalak eta Kontseilu Errektoreak Agorrosingo zelaiaren gainean hartutako aurre akordioari oniritzia eman zioten bazkideek.



Argazkian, BKEko ordezkariak egubakoitzeko batzarrean.

Kontseilu Errektorearen izenean, Inaki San Jose presidentek, Fernando Ibáñezek eta Enrike Apeñribaik hainbat elkarrizketa izan dituzte Udaleko arduradunekin. Lortutako aurre akordioaren arabera, Bergara Kirol Elkartek Agorrosingo zelaiaren jabetza utziko dio Udalari, eta trukean belar artifizialeko bi futbol zelai egingo ditu Udalak Agorrosingo kirol gunean. Egubakoitzeko batzarrean bazkideek euren oniritzia eman zioten asmo horri.

Bestalde, bazkideen kuoten igoera onartu zuten: datorren denboraldirako bazkide arruntek 55 euro ordaindu beharko dituzte (aurten 51 eurokoa zen kuota), erretiratuen txartelak 25 euro balioko du (aurten baino lau euro gehiago) eta babesle diren bazkideendako 80 euroko kuota onartu zen batzarrean. Ber-

gara Kirol Elkartek 400 bazkide inguru ditu gaur egun.

JOKALARIEN GURASOAK, BAZKIDE

Sail ezberdinetako jokalarien bazkideak ere kaxatik pasatu beharko dira datorren denboraldian. Federatutako jokalarien ama edo aita elkarteko bazkide egin beharko da eta jokalaria baten gurasoen kasuan 100 euro ordaindu beharko dituzte, horietatik 45 euro jokolariaren azterketa medi-

koa egiteko bideratuko delarik. Saskibaloia, eskubaloia, pilota eta futbol sailetako jokalariek guztiek egin beharko dute aipatutako azterketa. Arrasateko Athlon enpresa arduratuko da azterketak egin eta denboraldian zehar jokalarien jarraipena egiteaz.

Aurrekontuari dagokionez, Bergara KEak 180.300 euro inguruko aurrekontua izango du hurrengo denboraldian, horietatik 132.200 euro futbol sailak.

Igeri Elkarteko bost igerilari izan dira Euskal Herriko Txapelketan

E.M.
Bergara Igeri Elkarteko bost lagunek hartu zuten parte aste bukaeran Iruñean jokaturako Euskal Herriko Txapelketan. Albisua, Urzelai, Pérez, Galarra eta Laskurainek emaitza aipagarriak lortu zituzten.

Eli Laskurainek 50 m-ko tximeleta proban laugarren postuan sailkatu zen (33 segundo eta 09 ehuneko) eta 50 m estilo libreko proban 22. tokian geratu zen; Maite Urzelai seigarren postua lortu zuen 50 m (36:15) eta 100 m

(1:19:22) bizkar estilo probetan, 50 m estilo librean 12.a izan zen eta 100 m estilo librean 17. postuan sailkatu zen; Neritzel Albisuak, berriz, seigarren postua lortu zuen estiloetako 400 m-ko proban (6:14:60), 100 m bular estiloetako proban 7.a izan zen (2:55:40), 50 m bular estiloan 8.a eta, azkenik, 9.tokian sailkatu zen estiloetako 200 m-ko proban; Goiatz Pérez, azkenik, 16. geratu zen 50 m estilo libreko proban (31:64), 200 m-koan 17. postua eskuratu zuen (2:32:12) eta 100 m estilo librean 20. postuan geratu zen sailkapen absolutuan.

Errelebotan, bergararrek 4x50 m estiloetako proban hartu zuen parte. Maria Galarragak, Goiatz Pérezek, Neritzel Albisuak eta Maite Urzelai 16. postua eskuratu zuten, 2 minutu, 23 segundo eta 15 ehuneko denborarekin.

UDAN, ZEHARKALDIK

Txapelketak amaituta, Igeri Elkartek hainbat zeharkalditan parte hartuko dute. Bihar, hilak 25, Getaria eta Zarautz artekoa izango da eta Igeri Elkarteko 15 bat lagun izango dira. Domekan beste proba bat jokatu da Logroñoko Rasillo lakuan.

TXIRRINDULARITZA ETA HERRI KIROLAK

Txirrindulari igoera eta idi probak bihar Basalgo auzoan, Santiago jaien barruan

Bihar, egubakoitzean, Santiago jaien barruan, Basalgoko Txirrindulari Igoera jokatu da, 12:00etan. 15 urtera arteko neska mutikoek parte hartu ahal izango dute. Kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Izena ematea 11:30ak aldean Itesa lantegiaren ondoan.

Bestalde, arratsaldean, idi probak egongo dira Basalgon: Arruako *Etxetxok* eta Itziarko *Ixamak* buruz buru jardungo dute.

KIROLDEGIA

Labegaraietako Kiroldegia itxita izango da uztailearen 30etik irailaren 1era bitartean

Abuztuko oporraldia dela eta, Labegaraietako Kiroldegia itxita izango da uztailearen 30etik irailaren 1era. Datorren astean ohiko ordutegiarekin izango da zabalik, 09:30etik 12:30era eta 15:00etik 22:30era. Edozein argibidetarako bertara (943 76 56 41 telefono zenbakia) jo dezakete interesatuek.


Arantzabal eta Varela, onenen artean Santa Marina sarian

E.M.

Unai Arantzabal eta Kepa Varela Lokatza-Biciprecision Igartua taldeko txirrindulariak aurreneko postuetan iritsi ziren zapatuan jokaturako Santa Marina Sarian. Lan Mobil taldeko Igor Sagardogik irabazi zuen gazte mailako lasterketa; Sagardogi bakarrik iritsi zen helmugara eta handik 18 segundora lau laguneko taldetxo heldu zen San Lorentzoko helmugara. Unai Arantzabal izan zen esprintean nagusi, 2. postua eskuratu, eta Kepa Varela laugarren tokian sailka-

tu zen. Arantzabal zein Varela denboraldi bikaina egiten ari dira eta zapatuan ere onenen artean izan genituen.

Partaideek 98 kilometroko ibilbidea izan zuten zapatuan eta tartean bi mendate ziren, Udako gaina (77. kilometroan) eta Deskarga, helmuga baino 10 kilometro lehenago hain justu. Irteeran 42 txirrindulari izan ziren eta horietatik 38 iritsi ziren. Sagardogi probako irabazleak, batez beste, 35,53 kilometro orduko abiadura markatu zuen. Taldekako sailkapenean, berriz, Bruesa taldeak irabazi zuen.



TXIRRINDULARI ELKARTEA

Arantzabal bigarren tokian sailkatu zen, eta Varela laugarren postuan.

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrek 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Plater
konbinatuak
Oilasko erreak
eramateko



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

JOXAN ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29



DETRITUS TEATRUS

Detritus Teatrus taldeak *Burdy* azkeneko punkaren bitzta kontatuko digu umorearekin eta garaiko kantuekin lagunduta.

Anastua Jazz Perku Band eta Ciprinidias musika taldeak eta Detritus Teatrus arituko dira

Musika eta antzerki jaialdia bihar Gorlako kantuan

MONIKA BELASTEGI

Pikulitxa Rock izeneko jaialdiak musika eta antzerkia batuko ditu bihar, egubakoitza, Gorlako kantinarene ondoan. Cyprinidians eta Anastua Jazz Perku Band musika taldeak eta Detritus Teatrus antzerki taldeak ikusteko aukera egongo da, 20:00etan.

Musikaz eta antzerkiarekin gozatzeko aukera izango da bihar, egubakoitza, Pikulitxa Rock jaialdian. Udako gauen epeltasuna aprobetxatuz, Gorlan izango da, kantinarene parean, eta hiru taldek hartuko dute parte: bi musika taldek eta antzerki talde batek.

Batetik, Anastua Jazz Perku Band taldeak hartuko du parte jaialdian. Jatorri askotariko hainbat lagunek sortu zuten taldea iazko udaberrian, Gasteizen. Bestalde, hainbat estilotako kideak ere badira taldea osatu zutenak, eta helburua, hain zuzen, horixe izan zen, estilo aniztasun horiek uztartzea, eta askotariko musikak nahastea; jazzaren edo bluesaren kantu klasikoak zein autore abestiak.

Sei lagunek osatzen dute taldea. Seiok ibilbide musikala eta esperientzia ezberdina dute, eta euren jatorria da jazz, perkusio afro-latindarra eta autore abestia, hain zuzen ere.

Autore abestien kasuan, Inaxio Gabilondo Bergarako kantautorea da taldea abestiz hornitzen duena, betiere, gitarra eta armonikarekin lagunduta. Armonika eta gitarraz gain, taldea honako instrumentu hauek osatzen dute: gitarra elektrikoa, kontrabaxua, saxofoia eta perkusioa.

Anastua Jazz Perku Band-ek egiten duen musikaren oinarria perkusioa da: erritmo latindar eta afrikarrak *swing*-arekin konbinatuta. Kutxa flamenkoa, kongak, bongoak, *djembé*-a eta *swing*-

aren saíl erritmiko esanguratsua nahastu egiten dira jazzaren kontrabaxuarekin; gitarra elektrikoa, armonika eta saxoaren inprobisazioarekin, eta ahotsarekin.

Inaxio Gabilondoren kantuak intimistak dira, eta gitarrarekin lagunduta bere sentimendu, ideia eta emozioak adierazten ditu. Taldeko gainerako musikariek ñabarduren aberastasuna gehitzen diete kantuei, eta aldarrikapena, mina eta malenkonia nahasten dira kantuetan.

BERMEOTIK, CIPRINIDIANS

Cyprinidians taldea Bermeon sortu zuten 1999an. Zortzi lagunek osatzen dute taldea, eta *ska* eta *reggae* musika egiten dute. Hainbat emanaldi egin dituzte estuan barrena, eta "Brixton Cats and The Rudies" kantu bilduman ere hartu dute parte.

AZKENEKO PUNKAREN ISTORIA

Aurrez beste antzerki talde batzuetan jardundako aktoreek sortu zuten Detritus Teatrus 1999an. Helburutzat zuten ikusleak ikuskizunaren parte aktibo izatea eta helburu horrekin jarraitzen dute. *Las punkis también lloran* lana egingo dute; antzerkia eta musika uztartzen dituen lana. Emanaldian *Burdy*-ren azkeneko punkaren istorioak kontatuko dituzte. Umore ona eta ikusleei probokazioa ziurtatuta daude.

Udako gau epelak aprobetxatuz, emanaldia 20:00etan hasiko da, Gorlako kantinarene parean

Anastua Jazz Perku Band taldeko kantaria bergararra da: Inaxio Gabilondo

Abuztuan zinema egongo da eguenetan San Martin plazan

MONIKA BELASTEGI

Udako Gauak egitarauaren barruan, abuztuan zinema emanaldiak egongo dira San Martin plazan. Emanaldiok eguenetan izango dira, 22:00etan.

Emanaldietarako pantaila handia eta aukerak jarriko dituzte San Martin plazan, aurreko urteetan egin izan duten bezala. Gainera, emanaldiok doan izango dira.

LAU FILM: BI EUSKARAZ ETA BESTE BI GAZTELANIAZ

Lau film ikusteko aukera egongo da, eguen bakoitzeko bat, eta bi euskaraz eta bi gaztelaniaz izango dira: abuztuaren 7an, *Spijerman* filma emango dute, gaztelaniaz; abuztuaren 14an, *Ipar haizearen itzulera*, euskaraz; abuztuaren 21ean, *La máquina del tiempo*, gaztelaniaz; eta abuztuaren 28an, *Guztieki nahi zuten hilda*, euskaraz.

Rao Trio taldearen jazz emanaldia bihar Espoloian


MONIKA BELASTEGI

Valladolidetik datorren hirukotea da Rao Trio. Talde iraultzailea da, bereziki, zanfona doinua jazean sartzeagatik. Emanaldia, ohi bezala, Espoloian izango da, 22:30ean, bihar, egubakoitza.

Talde originala da Rao Trio. Zanfona, baxu elektrikoak eta bateriak osatzen dute taldea. Eta, bereziki, zanfona jazz musikan sartzea da orijinaltasuna ematen diona taldeari. Hirukotearen errepertorioa euren kantuek eta autore garaikideen abestiek osatzen dute.

Bestalde, estetika berezia dute, abangoardiako musiken barruan beste herrialde batzuetan entzuten hasi den estiloa defendatzen duen estetika berezia, hain justu.

Duela hiru urte sortu zen taldea, eta penintsulan barrena hainbat emanaldi egin dituzte. Bestetik, Rao Triok Espainia ordezkatuko du aurten jazzaren nazioarteko ibilbidean. Injuvek horretarako aukeratu eta gero. Honako hiru lagunek osatzen dute taldea: Cesar Díez (baxua), Diego Martín (bateria) eta German Díaz Lópezek (zanfona eta klarinete baxua).



Irudian German Díaz, Cesar Díez eta Diego Martín, Rao Trio taldeko hiru kideak.

LABUR

Udal Musika bandak emanaldia egingo du bihar, egubakoitza, Billabonan

Udal Musika Bandak kontzertua egingo du bihar, egubakoitza, 13:00etan, Billabonan. Emanaldia Billabonako Udal pilotalekuan egingo du Udal Musika Bandak. Ohi bezala, banda zuzentzen, Alfredo Gonzalez Chirlaquek jardungo du.

Mari Paz Alustiza margolariaren ikasleen erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan. Hogei ikasleren hogeik lanek osatzen dute erakusketa eta bertan ikasleek azkeneko lanak ikusteko aukera egongo da. Erakusketa hilabete bukaera arte egongo da ikusgai. Tabernako ordutegian.

Bergarako Shotokan Karate-Dok taldeko zuzendaritzaren izenean,


ZORIONIK BEROENAK

ikasle guztiei aurtengo emaitza bikainengatik eta lortutako gerriko beltz 1 Dan-engatik.

Irailean ikusiko dugu berriz ere elkar!



SHOTOKAN KARATE-DO





San Juan 1 A.
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04


UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak





Aukera onenak. Orrazkera apainenak.

ADATS

- Herri lagunak 4
BERGARA
943 76 49 51
- Europako azken tendentziak
 - Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua
 - Solarium bertikala



- Boni Laskurain 2
BERGARA
943 76 56 05
- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
 - Kerastase tratamend.
 - Makillaje bereziak
 - Abangoardia lanak

disdira

- Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55
- Luzatzeak
 - Azken joerak
 - Ezkontzak
 - Metxak eta moldeatuak

IDOLA

- Espoloia 4
BERGARA
943 76 97 75
- Ile luzatzeak
 - Aurpegiko larruazal garbitzea
 - Solariuma

ileak

- Ozaeta 3
BERGARA
943 76 22 54
- Ilerako tratamenduak
 - Teknika berriak
 - Era guztietako orraskerak

IZARRA

- San Pedro 23
BERGARA
943 76 29 72
- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
 - Ilerako bitxiak
 - Solariuma dutxarekin

Jean Louis David

- Ibargarai 43
BERGARA
943 76 22 48
- Teknika aurreratuenak
 - Deskontu txartelak
 - Solariumerako bonoa
 - Estilistaren aholkuak, konpromiso barik

KIZKUR

- Bolu 51
BERGARA
943 76 50 32
- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
 - Azken joerak
 - Puntako markak

ORRASKI

- San Pedro 6
BERGARA
943 76 47 01
- Ile apaindegi mistoa
 - Kolore bereziak
 - Ezkontzak
 - Solariuma

Ostadar

- Ibargarai 42
BERGARA
943 76 72 76
- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
 - Depilazioa eta makillajea
 - Solariuma dutxarekin

Pepelu

- Zurradero 2
BERGARA
943 76 43 07
- Gizonezkoendako
 - Labanaz mozteak
 - Azken tendentziak
 - Bizartegia
 - Kolea

SANCHEZ

- Fraiskozuri 4
BERGARA
943 76 23 70
- Gizonezkoendako
 - Labanaz mozteak
 - Klasikoa/modernoak
 - Bizartegia
 - Kolea

 ELGETA Garaine Txurruka Abuztuaren 2an, 10 urte. Urte askotarako! Etxekoak.	 ELGETA Odei Zenitagoia Abuztuaren 15ean, 12 urte. Urte askotarako! Etxekoak.	 BERGARA Idoia Agirrezabal Uztailaren 30ean, 3 urte. Urte askotarako! Nerea eta etxekoak.	 BERGARA Janire Jiménez Abuztuaren 31an, 7 urte. Urte askotarako! Familiakoak.	 BERGARA Eztizen Bolaños Uztailaren 27an, 19 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta ahizpak.	 BERGARA Iranzu Bolaños Uztailaren 25an, 14 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta ahizpak.	 BERGARA Garazi Zubizarreta Uztailaren 31an, 6 urte. Urte askotarako! Aita-amak eta Mikel.	 BERGARA Eneko Larrañaga Uztailaren 26an, 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak.
 BERGARA Maia Zalakain Uztailaren 24an, 4 urte. Urte askotarako! Josu eta Nordin.	 ANTZUOLA Irati Gardoki Uztailaren 30an, 3 urte. Urte askotarako! Familiakoak.	 BERGARA Haizea Núñez Abuztuaren 4an, urtebete. Urte askotarako! Etxekoak eta lehengusuak.	 BERGARA Aritz Bikuña Uztailaren 24an, 31 urte. Urte askotarako! Nerea eta tia Itzi.	 BERGARA Olatz Ruiz de Larramendi Uztailaren 29an, 3 urte. Zorionak! Familiakoak.	 BERGARA Naiara Roman Abuztuaren 10ean, 3 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Jon Ander.	 BERGARA Julen Arana Uztailaren 24an, 11 urte. Urte askotarako! Mireia eta gurasoak.	 BERGARA Deiane Márquez Abuztuaren 7an, 4 urte. Urte askotarako! Julen, Mireia eta familia.
 BERGARA Mikel Kortabarría Uztailaren 24an, 9 urte. Zorionak! Elisa, Julen, Gorka, Julen eta etxekoak.	 BERGARA Miren Txurruka Uztailaren 24an, 5 urte. Urte askotarako! Etxekoak.	 BERGARA Unai Txurruka Uztailaren 27an, 2 urte. Urte askotarako! Etxekoak.	 BERGARA Aitor Rubio Uztailaren 24an, 3 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta Andrea.	 BERGARA Ramon Rubio Abuztuaren 4an, 37 urte. Urte askotarako! Aitor, Andrea eta Karmen.	 BERGARA Hodei Gómez de Balujera Abuztuaren 3an, 3 urte. Zorionak! Etxekoak.	 BERGARA Agustin Heis Uztailaren 27an, 29 urte. Urte askotarako! Etxekoak.	 BERGARA Mikel Pérez Uztailaren 31n, urtebete. Urte askotarako! Asier eta familiakoak.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:


Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33 **Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara **Elgeta:** Erosle-Baltxongua



**Giartzu Kirol Elkarteak opor zoriontsuak
opa dizkie bere kirolari guztiei**


GIARTZU
KIROL KLUBA
Boni Laskurain 3
Telefona: 943 76 35 71

GIARTZUKO KARATE KLUBA
Karate federatua Gipuzkoako Euskadiko
eta Espainiako Federazioetan.



Musikaire

Udako Jaialdiak Elorrión 2003



<p>Ekainak 20 Ostirala, 22.30</p> <p>CAPELLA GREGORIANA EASO</p> <p>San Agustino elizan</p>	<p>Ekainak 21 Larunbata, 22.30</p> <p>BRASSASS COMPANY Jazz fusioa</p> <p>Gazetako Andra Mari ermitan ●Elizpean</p>	<p>Ekainak 27 Ostirala, 22.30</p> <p>BIDINTE World Music</p> <p>San Jose Ermitan ●Elizpean</p>	<p>Ekainak 28 Larunbata</p> <p>III. KULTUR AZOKA</p> <p>Plazan / 9.30-14.30</p>	<p>Ekainak 28 Larunbata, 22.30</p> <p>TANGATA Tangoak</p> <p>Argifietan</p>
<p>Uztailak 4 Ostirala, 22.30</p> <p>HAIZEA Organoa eta tronpeta</p> <p>Elizan</p>	<p>Uztailak 5 Larunbata, 22.30</p> <p>NON DEMONTRE LOGELA multimedia Multimedia ikuskizuna</p> <p>Plazan ●Arriolan</p>	<p>Uztailak 6 Igandea, 22.30</p> <p>LA CONTROVERSIA DE VALLADOLID Antzerkia</p> <p>Plazan ●Arriolan</p>	<p>Uztailak 11 Ostirala, 22.30</p> <p>1937 GOGOAREN BIDEZIDORRETATIK Dantza</p> <p>Elizpean ●Arriolan</p>	<p>Uztailak 12 Larunbata, 22.30</p> <p>JOSE LUIS MONTON Flamenkoa</p> <p>Lourdesko koban ●Elizpean</p>
<p>Uztailak 18 Ostirala, 22.30</p> <p>PIRINEOS JAZZ ORCHESTRA</p> <p>Elizpean ●Arriolan</p>	<p>Uztailak 19 Larunbata, 22.30</p> <p>GRUPO BILBAO CAMARA Klasikoa</p> <p>Casajara jauregian ●Elizan</p>	<p>Uztailak 20 Igandea</p> <p>BARTO Kale antzerkia</p> <p>Bi pase: 20.00 eta 22.00 Plazan /Kale Antzerkia ●Elizpean</p>	<p>Uztailak 25 Ostirala, 22.30</p> <p>NEW ORLEANS GOSPEL CHORALE</p> <p>Elizpean ●Arriolan</p>	<p>Uztailak 26 Larunbata, 22.30</p> <p>KRANSNOYARKS CHAMBER ORCHESTRA Klasikoa</p> <p>Tola jauregian ●Elizan</p>

● EGURALDI TXARRA EGITEN BADU

Babesleak



Laguntzaileak



Kontuola

ANTZUOLA / Eguena / 2003ko uztailaren 24a / 167. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02


Behin-behineko aparkalekua jarri dute maristen eraikina zegoen tokian

AINZANE IRIZAR

Orain dela hiru aste eraitsi zuten, azkenean, maristena izandako eraikina. Leku hori aprobetxatuta, autoendako behin-behineko aparkalekua egokitu du hantxe Udalak. Orain, berriz, beste hainbat lan egitekoak dira toki horretan, gunea txukuntzeko.

Maristen eraikina zegoen tokian hainbat lan egin eta herriko jaientarako aparkalekua egokitu zuten hantxe. Kanpotik etorritako jendeari, batez ere, ondo etorri zitzaion aparkatzeko gunea hori.

Aurrera begira, Gizarte Etxe berria egiteko asmoa du Udalak toki horretan. Bi aurreproiektu zituen Udalak eskuartean, maristen eraikinean Gizarte Etxea egiteko. Eraikin hori bota egin behar izan dutenez, egoera guztiz aldatu da eta momentu honetan ez dago inolako proiekturik. Kultura batzordeak lanean dihardu, eta irailtik aurrera hasiko da aukera guztiak aztertzen. Udaleko arduradunen esanetan, behin betiko proiektua egin, proiektu hori onartu eta lanekin hasi orduko, hilabete batzuk pasatuko dira. Horrela, Gizarte Etxea eraikitzen



Herriko jaietan, batez ere, oso ondo etorri zen Eguzki auzoaren ondoan aparkalekua egotea.

hasi bitartean, gunea hori aparkaleku moduan erabiltzen jarraitu ahal izango dugu.

Eguzki auzotik jarri dute aparkaleku berrirako sarrera, auzo horretako aparkalekutik, hain zuzen ere.

INGURUAK TXUKUNDUKO DITUZTE

Aparkalekua behin-behineko den arren, esan bezala, hilabete batzuk pasatuko dira Gizarte Etxea eraikitzen hasi orduko; bien bitartean ingurune hori txukun egotea nahi du Udalak, eta

horretarako hainbat lan egingo dituzte: hesiak kendu, eta horren ordez, barandak jarriko dituzte; agerian geratu den hoditeria ezkutatu egingo dute eta lanek eragindako hainbat kalte konponduko dituzte.

HERRITARREN HITZA / Paco Morcillo • Langilea

Kultura: Kultura Etxea

Azkeneko egunotan, maristen eraikina zela eraisten zuten ikusi ahal izan dugu. Zinema, erretiratuen egoitza eta herriko hainbat kultura taldek euren jarduerak aurrera eramateko egoitza bilhurtu zen eraikin hori, maristena izan eta gero.

Herritarren artean eraikinaren gaineko galdeketa egin zuen Udalak, eta eraikin hori Kultura Etxe moduan erabiltzea erabaki zuen.

Eraikinaren osasun egoera, baina, ez zen oso ona; ez zen eraberritua izateko bezain ona.

Orain, Kultura Etxea izango den eraikin berria egin beharrean aurkitzen gara. Duda barik, guztiz beharrezkoa da, nahiz eta kultura kalean ere egin daitekeen. Hemen idazten dizuen honentzat, garrantzi-



"Kultura Etxea egin bitartean, ez diezaiozun laga kultura egiteari"

tsuena da Kultura Etxe hori parte hartzailea izatea eta kulturaren alor guztietan garapen ona izatea. Bestalde, aberasgarria izango litzateke belaunaldi ezberdinetako jendearekin elkarrekin harremanak izateko aukera eskaintzea.

Kultura, euskararen arloan, hizkuntza ikasi eta hobetzeko. Musikari dagokionez, arte hori garatzeko.

Dantza erregionalei dagokienez, dantza horietan parte hartzeko. Azken baten, kultura garapenari dagokionez, herritarrak aberastuko dituen jarduera guztiak hartzea.

Herritar moduan, berandu baino lehen, herrian Kultura Etxe berria izatea espero dut. Bitartean, baina, ez diezaiozun laga kultura egiteari.

LABUR

Kristina Pavo antzuolarra dugu bake epaile berria

Aurreko asteko eguenean hartu zuen Kristina Pavok bake epaile izateko kargua. Atzo bertan, eguena, zen haştekoa lan berri horretan. Erregistro Zibilaz arduratuko da Kristina: bikoteak ezkontzeaz eta jaioberrien izenak erregistroan sartzeaz arduratuko da, besteak beste. Bestalde, falta-epailetak tramitatzeaz ere arduratu beharko du Kristinak. Horren harira, gogora ezazue eguen goizetan egoten dela zabalik Bake Epaitegia, udaletxean bertan.

Alde zaharreko kaleetan lurzorua aldatuko dute

Alde Zaharra Eraberritzeko Plan Bereziarekin lotuta, etorkizunean kaleetako lurzorua aldatzeko asmoa du Udalak. Erabaki garrantzitsua izanik, jendearen iritzia kontuan hartuko du Udalak. Horretarako, erakusketa jarriko dute astelehenean, hainbat lurzoru motarekin. Irailean ere egongo da ikusgai erakusketa hori.

JAIEN ONDORIOAK

Herriko jaietan kalte ugari eragin dituzte

Jaietan giro eta eguraldi ona nagusitu zen arren, jaien bihar ramuna bestelakoa izan zen.

Kalte ugari eragin dituzte ezegzagun batzuek herriko hainbat tokitan.

Batetik, ambulatorioko igogailuan; jaien ostean martxan jartzeakoak ziren igogailu berri hori, baina, jaietan jasan dituen kalteak ikusita badirudi ezin izango dutela estreinatuta irailera arte. Ezegzagun batzuek atea indarrez zabaldu, barrura sartu, hainbat botoi eta kable apurtu eta pintadak egin zituzten barruan.

Bestetik, herriko alde berrian, Sagasti auzoan, hain zuzen ere, hamar bat zuhaitz apurtu dituzte. Gainera, azkenaldi honetan jarri dituzten farolak ere apurtu dituzte. Hamabost bat farola azaldu ziren buru barik.

Horrez guztiaz gainera, gunea horretan aparkatuta zeuden hainbat automobil ere hondatu azaldu ziren; batez ere, hainbat marka egin zizkietelako.

Udaleko arduradunek adierazi digutenaren arabera, jaietako gunean, aldiz, ez da inolako arazorik izan.

Ekitaldi jendetsuenak domekan izan ziren

Lau eguneko nekea gainean genuen arren, domekako ekitaldiak izan ziren arrakastatsuenetakoak eta jendetsuenetakoak; zirku ikuskizuna eta eskalatzaileen erakustaldia, batez ere.

Jaien hasiera ezohikoa izan zen: udalbatza dantza saioa egiten zebilen bitartean, bi kon-

tzentrazio egin zituzten: Gertu Gae plataformakoek bata eta Gazte Asanbladako kideek bestea. Gainerakoan, baina, giro onean joan ziren jaiak.

Aurtengo berritasunetako bat izan da txosnak beste toki baten jarri dituztela, Udal Pilotalekua- ren ondoko frontoi txikian, hain zuzen. Ezkutu samarrean gera-

*Aurtengo jaietako
berrikuntzetako
bat izan da
txosnak toki
berrian jartzea*

tzen den arren toki hori, jendeak topatu zituen, bai, txosnak.

Alardean, berriz, berritasun gutxi egoten da, baina aurtengoa egon da, bai, zerbait berria; izan ere, Genaro Laskurainek hogeita laugarren eta azkeneko aldiz hartu zuen parte; horregatik, alardea amaitu zenean, omenalditxoak egin zioten.

Alardearen ondoren, Zurra-tegi aldera abiatu ginen asko, Gazte Asanbladakoek antolatutako Herri Olinpiadak ikustera; baina, horren ordez, kontzentrazioa egin zuten gazteek. Jaiak amaitzeko, domekan, esan bezala, ekitaldi arrakastatsuenetakoak izan genituen.

ARGAZKIAK: AINTZANE IRIZAR



Giro arraro samarrean hasi ziren jaiak, protesta ekitaldiekin.



Egubakoitz gaueko kontzertuak jende ugari erakarri zuen.



Hogeita lau urteren ostean, Genarok agur esan dio Alardeari.



Herri Olinpiadak bertan behera laga eta kontzentrazioa egin zuten Gazte Asanbladako kideek.



Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

**LEKY-BERRI
MERENDEROA**

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

HARAGIAKIN



Sakelakoa
Faxa
Hiltegia.....

608 67 18 10
943 76 65 11
943 71 63 21



Gaztetxoenen gune gustukoena izan dira barrakak; hantxe laga dituzte askok jaietako diru guztiak.

Ikusmin handia piztu zuen Bielorrusiako zirkuak domeka arratsaldean.




Trastortzak ezin izan zuen parterik hartu; haren ordeaz, bi eskalatzaila gazte igo ziren kanpandorrera.

Zurrategi itsaso bihurtu zuten Kulki taldekoek, eta umeak arraunlari eta arrantzale bihurtu ziren.



Herri bazkarian presoan senitartekoak omendu zituzten antolatzaileek.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA



Z *Zabalo Iturgintza S.L.*
Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrun instalazioak
- Bero-urreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentek bideratzen ditugu

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

Goibekokale

ELGETA / Eguena / 2003ko uztailaren 24a / 151. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazalgegi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Dirulaguntza bikoitza 'Egunkariaren'-dako

IRATI AGIRREAZALGEGI

Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik lanean jardun dute egunerokoaren alde dirua batzeko Elgetako batzordekoek. Itxieratik lau hilabete pasa direnean, elgetarrek jarritako helburua pasatu ez ezik, ia bikoiztera ere iritsi dira, eta diru gehiago batu nahi dute.

Elgetako *Egunkaria*-ren Aldeko batzordekoek hasierako protesta ekintzez gain beste hainbat lan egin dituzte *Berria* egunkariaren proiektua aurrera atera zedin.

Besteak beste, kamisetak, metxeroak eta pinak saldu dituzte, eta horrekin makina bat diru atera dute.

JAIALDIA

Berria aurkeztu zuten egun berean, Elgetan egunkari horren alde dirua batzeko kirol festa egin zuten, eta bertan lortutako diruarekin 300 euroko zazpi akzio erosi zituzten. Akzio horiek batzordean ibili diren zazpi kideetako batzuen izenean erosi dituzte.

Horrez gainera, izan da herri-tarrik bere kontura akzioak erosi dituenik.



IBAN ARANTZABAL

Jaialdian ateratako diruarekin 300 euroko zazpi akzio erosi zituzten.

Biztanle eta euskaldun kopurua kontuan hartuta elgetan 2.600 euro lortu behar zirela esan zuten hasieran. Baina helburu hori gainditu ez ezik, ia bikoiztu ere

egin dela esan daiteke. Batzordekoek dirua batzen jarraituko dute eta jendeari gogorarazi nahi diote oraindik garaiz daudela *Berria*-ren alde akzioak erosteko.

JAIK

Salbador kaleko jaiak abuztuaren 6an

Urtero moduan, Salbador egunez jaiak ospatuko dituzte izen bereko kaleko bizilagunek.

Salbador ermitaren alboan zuhaitza igoko dute goizean, etxafuego zarataz lagunduta, eta jaiak hasi ostean, meza izango da Salbadorren bertan. Mezaren ondoren, soinu jotzaileek alaituko dute giroa eta salda, txorizoa eta tortilla jateko aukera izango da.

Arratsaldean umek jolasean jardungo dute eta gero etxeko txikiendako txirringulak proba izango da. Salbador kalean gora ermitaraino igo beharko dute bizikletaz.

Indarrak berritzeko herri afaria izango da Salbador kalearen ostean, aurrez txikiteoa eginda.

Jaiak amaitzeko, erromerian dantzarako doinuak entzungo dira Joxe Gardokiren eskutik.

GOIMENDI

Baina Salbador jaietara itxion barik festarako gogoia dutenendako, aste honetan bertan bada aukerarik. Goimendi auzoan jaiak ospatuko dituzte gaur eta bihar, uztailaren 24an eta 25ean.

Iluntzean, auzoko plazan berakatz-zopa jenez jaiak hasi eta gero erromeria izango da goizalderarte. Santiago egunez, egubakoitzean, berriz, meza, herri kirolak, bertsolariak, dantza solte erakustaldia, bolo jokoa eta erromeria daude antolatuta auzoko jaiak girotzeko.



Salbador ermitan meza izango da abuztuaren 6an jaiak ospatzeko.



Fo Fo Fo taldea txapeldun

Fo Fo Fo futbol taldea txapeldun izan da Ipintzako Txapelketan. Bildurbarek Opel Lam taldeari irabazi zion finalean (3-3). Elgetarren golak Oxel eta Koldo Erostarbek eta Haritz Gallastegik sartu zituzten. Berdinketaren ostean, penaltien txanda etorri zen, eta lau gol sartu zituzten Fo Fo Fo taldekoek eta hiru, berriz, bergararrek. Hala, txapelketaren trofeoaz gainera, Fo Fo Fo taldeko Koldo Erostarbek jokalaria onenari ematen zaion BERRIGARA saria jaso zuen./I.A.



ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

KIROLA

Jacinto Ceballos bizkaitarra nagusi XIX. Euskadiko Mendiko Txirrindulari Lasterketan

Joan zen domeka goizean jokatu zen XIX. Euskadiko Mendiko Txirrindulari Lasterketa. Helmugan Alfus-Tedes taldeko Jacinto Ceballos bizkaitarra izan zen nagusi; 122 kilometroko ibilbidea hiru ordu 15 minutu eta 12 segundotan egin zuen.

Alfus-Tedes taldeko Jacinto Ceballosek irabazi zuen euskaldun zirkuiturako puntuagarria den XIX. Euskadiko Mendiko Txirrindulari Lasterketa. 142 txirrindulari hasi zuten proba, 10:00etan, Elgetako plazan, eta 63 iritsi ziren helmugara. Hainbat ihesaldi izan ziren: Elorrion, 15. kilometroan, 21 lagunek osatutako talde batek aurre hartu zuen, eta 81. kilometrorara arte joan zen ihes eginda.

Asentziorako igueran erasoaldi bat baino gehiago izan zen, eta azkenean 16 txirrindulari taldea osatu zen. Gaietan Aitor Pérez Arrieta izan zen lehena.



Jacinto Ceballos, ezkerretik hirugarrena, gainerako saritu eta antolatzaileekin.

AZKEN ALDAPA

Ihesaldien ostean, ordea, azken maldan erabaki zen lasterketa. Wurth-Once taldeko Jesus Hernándezek jo zuen erasoari Ceballosek eta Pérez Arrietak erantzun zioten, eta helmugarako bi kilometro falta zirenean harrapatu egin zuten. Azken kilometroan Jacinto Ceballosek egin zuen ihes eta helmugara lehen tokian iritsi zen. Hiru ordu, 15 minutu eta 12 segundo behar izan zituen proba amaitzeko. Eta zazpi segundora iritsi ziren Aitor Pérez Arrieta eta Jesus Hernández, hurrenez hurren.

Txirrindulari lehiakorrenari ematen zaion saria Wurth Once taldeko Ivan Santosek jaso zuen.

Proba amaituta, bizikleta eta urdaiazpikoak zozketatu zituzten plazan. Zenbaki irabazleak honako hauek dira: bizikleta 3.708 (ordezkoa 1.311) eta urdaiazpikoa 4.061 (ordezkoa 3.424). Irabazleak hilabeteko epea izango du saria jasotzeko.

LABUR

Sagardo Eguna irailaren 20an ospatuko dute

Udan gauden arren, gaztetxe-koak hasiak dira aurtengo Udazken Jaia antolatzen. Oraindik egitarau finkorik prestatu ez duten arren, ohitura bihurtu den patata-tortilla lehiaketa egongo dela iragarri dute. Irailaren 20an izango da jaia eta Sagardo Egunean bertan egoteko dei egin nahi diete gaztetxe-koek herritarrei. Bide batez, lehiaketa izena emateko epeari adi egoteko esan dute, herritarren parte-hartzea beharrezkoa da eta holako jaietan.

'Goienkaria'-k banatzaileak behar ditu Elgetarako

Joan zen astean *Goienkaria* zuen etxeko postontzian beharrez atarian aurkitu zenuen, eta aste honetan ere horrela egin dugu banaketa. Izan ere, ez dago banatzailerik aldizkariak Elgetako etxeetara eramateko, eta egoera konpondu artean modu berean iritsiko zaizkizue aleak. Hala ere, berriz gerta ez dadin, egubakoitz arratsaldean *Goienkaria* Elgetako postontzietara eramateko banatzaileak behar dira. Banatzaileek diru saria jasoko dute egindako lanaren truke. Hortaz, 943 71 23 91 telefonora deitu beharko dute prest daudenean, argibide gehiago jasotzeko.

Elgetarrek arazoak dituzte eskola garraioarekin

Datorren ikasturtean Bergara autobusez joan behar duten eskola-ume elgetarrek arazo batekin egin dute topo. Ikasle kopuruak behera egin du, eta, hortaz, autobusean joatearen truke ordaindu beharrezkoa garestiagoa da. Hori dela eta, gurasoek arazoa Udalean azaldu dute eta erantzunaren zain daude.

ELIZA

San Sebastianen erretaula berrituta

Santa Maria eliza barruan hainbat obra egin dituzte azken urteotan. Berriki amaitu dituzte, hain zuzen ere, San Sebastianen erretaula berritze-lanak, eta horrekin batera pulpitu ere eraberritu dute. Lau hilabete behar izan dituzte lanak amaitzeko.


Andra Mariaren Jasokundeko eliza nagusia XV. mende bukarakoa da. Kanpotik berritu ostean, barruan zenbait lan egin dira. Bertan dago Santiagoren erretaula, sakristiako atearen ondo-

an. Adituen arabera, Euskal Herrian dauden italiar kutsuko lanen artean aipagarrienetakoa da. Iaz berritu zuten, elizako organoarekin batera.

Aurten San Sebastianen erretaularen txanda izan da. Orain dela lau hilabete hasi zituzten erretaula hori berritzeko lanak, eta berriki amaitu dituzte.

Horrekin batera egurrezko taila dotoreak dituen pulpitu ere berritu dute.

Lanak Bilboko Siglo XXI eraberritze enpresak egin ditu eta guztira 39.873 euroko aurrekontua izan dute.



Lau hilabete behar izan dituzte San Sebastianen erretaula zahar berritzeko.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g. Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA



RECYDE, S.A.

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR



Enpresa Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Arantzadi, Azkue eta
Aita Donostia Bergaran

Alboko argazkia 1930. urtearen inguruan ateratakoa da, Bergarako Epaitegiaren ondoan. Ezkerretik eskumara Telesforo Arantzadi antropologo bergararra, Resurrecion Maria de Azkue abade eta hizkuntzalari lekeitiarra eta Aita Donostia abade eta musikari donostiarra

ikus ditzakezue.

Arantzadi Farmazian eta Natur Zientzietan doktoratu zen eta eremu asko landu zituen: botanika, etnologia eta paleontologia, besteak beste. Arantzadiren idazlan guztietan ederki ikusten da zientziari eta Euskal Herriari zien maitasun handia. Bergaran urte gutxitan bizi izan bazen

ere, bere jaioterrria ez zuen sekula ahaztu, argitaratu zituen lanetan argi ikusten denez.

Azkue, berriz, Euskaltzaindiko sortzaileetako bat izan zen, 1918an, eta Aita Donostia euskaltzain izan zen.

Urtea: 1930



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

Ertzaintzaren
komisaria

Ertzaintzaren komisaria Arrizuritik Ibargaraira eraman zuten 2001eko maiatzean. Ordurako, ezkerreko argazkian ikusten diren Beheko Estazioko eraikina eta Eguren tailerrekoa botata zeuden. Ibargarain etxebizitza mordera eraiki dituzte azken urteotan eta oraindik ere etxe gehiago egiteko dago inguruan. Erabat aldatu da Ibargarai kalea azken hamarkadan.



≈1994 Hamar bat 10 urte izango dituen argazki honetan, ezkerrean Beheko Estazioko eraikina eta eskuman Eguren tailerrekoa.



2003 Azkenaldian erabateko itxuraldaketa izan du Ibargarai. Etxebizitza ugari egiteaz gain, Ertzaintzaren komisaria jarri dute han.

Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBIZIBAR

Armarri horiek kale berean daude. Non?

GALDEDEBALDE

1.

Santa Marinako inauguraziora Gipuzkoako gotzaina etorri zen. Zein da bera?

- A/ Jose Maria Setien.
- B/ Jesus Mari Albisu.
- C/ Juan Mari Uriarte.

2.

Anastua Jazz Perku Band musika taldean Bergarako gazte bat dihardu. Zein?

- A/ Felipe Larrañaga.
- B/ Cesar Díez.
- C/ Inaxio Gabilondo.

3.

Ipintzako Futbol 11ko txapelketan zein izan da jokalaririk onenaren saria irabazi duena?

- A/ Markos Alonso.
- B/ Oxel Erostarbe.
- C/ Koldo Erostarbe.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatutako du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANDONI BADIOLArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Andoni!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Pikupe / Galde debalde: 1-B, 2-B, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Col-hogar komuneko papera

12 erroilu

2,15 €

358 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



E.M.

ESKULTORE BERGARARRAK GAUR

Eneida Larrañaga

EDU MENDIBIL

Elgetan bizi den arren, Eneida Larrañagak (1972) harreman estua dauka Bergararekin. Besteak beste, Simon Arrieta zeramik taldean urte mordo daramatza. 16 urte zituela Eibarren eta Deban artearekin zerikusia zuten hainbat ikastaro egin zituen (eskultura ere landu izan du), eta handik gutxira Simon Arrieta zeramika taldean hasi zen. Gaur egun, lana dela eta, zeramikan murgiltzeko denbora handirik ez duela diosku. Hala ere, astean behin joaten da Zabalotegin duten lokalera: "Artisau-lanak egiten ditut: pitxerak, figurak eta horrelakoak. Tornu elektrikoa erabiltzen dut, eta, eskuekin piezak landu eta gero, labean sartu eta kolorea ematen diet. Zailena labean sartzeko prozesua izaten da, askotan piezak apurtu egiten direlako. Eskuekin lan egitea asko gustatzen zait, eta irudimena lantzeko ere ederra da zeramika lantzea".

Etorkizunari begira, zeramika piezak saltzeko lokal bat zabaldu nahiko luke Eneidak. Bien bitartean, Zabalotegin dihardu lanean: "Elgetan ere badago lokal bat, baina kulturarekiko ardura txikia sumatzen dut".

"Irudimena lantzeko gauza ederra da zeramika lanak egitea"

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

SANTOS



Extresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10

Deskubritu ezazu

Signum Klase berria



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.



Guztiz auto berria. Barrutik aparta eta kanpoko diseinua erabat dotorea. Opel Signumek parekorik ez duen espazioa emango dizu, erabateko flexibilitatea eta benetako erosotaduna, bai zuretzat eta baita atzealdeko bidaiarientzat ere. ECOTEC motore generazio berritzailearekin, horren erakusgarri 155 zalditako injekzio zuzena duen 2.2 16v motorea, 177 zaldi dituen 3.0 V6 CDTI Turbodiesel Common Rail motorea eta 211 zaldidun 3.2 V6 motore indartsua. **Auto honetan zu zara ohorezko gonbidatua. Zuretzat egin dugu. Opel Signum berria da.**

Giauto

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. **BERGARA**

www.giauto.es